

Elizaren ekonomiaz

El cristianismo, entre otras religiones, ha debido interpretar la realidad del mundo y sus bienes, así como el uso ético y humano de los mismos, atendiendo a la vida y conducta de ricos y pobres. Las convicciones religiosas llevan consigo unos valores de solidaridad en el reparto de riquezas y trabajo, valores que, después, se han podido encarnar en la sociedad y las instituciones religiosas con mayor o menor fidelidad, o con renunciaciones escandalosas.

Erlijioek, zerura ez ezik mundura ere begira, beren sinesgaien eta arauen artean izan dituzte ondasun, jabetza eta lanarekiko kezka eta jarrerak. Esaterako, erlijio-bizitzari irtenbide ekonomikoak bilatu nahirik, limosnari buruzko jokabideak presente daude erlijio ezberdinetan, arau eta antolaera jakinekin.

Erlijioa eta ondasunak

Arazo honetan, Islamaren adibidea polita da. Musulman jatorrak oinarrizko bost arau ditu, hauek dira: Allah-ren aitortpena, otoitza, baraua, peleginazioa eta limosna (*zakât*). Limosna hori instituzionala da, Estatuaren alde sozialarekin badu zerikusirik eta gizartearen oso antolatua dago, norberaren borondatezko limosna baino dexente gehiago da *zakât* deitu hori.

Kristautasunaren sortzean bertan nabariak dira aberastasunarekiko errezeloa, pobreekiko errukia eta onginahia, ondasunak elkartean banatzeko gogoia, etab. Aberastasunak Jainkoaren oparia direla esango da Biblian, baina kontuz erabili behar direla norberaren eta inoren kaltetan izan ez daitezela.

Pobrezia, berez, ez da balorea, gaitza eta ezbeharrak baizik; baina behartsuak zorionekotzat jotzen ditu Jesusek: "Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege". Ez da, beraz, harrizkoa, zenbait mende geroago kristautasuna sakonagotik bizitzeko antolatutako lagunartek (monje, fraide eta mojak) beren hiru zinitzen artean bat txirotasunaren hau izatea, hain zuzen. Kristau izaeraren pobretasunaz gogoeta eta literatura zabala daude Eliza kristauetan.

Dena den, pentsamendu horretaz gainera, bizitzako pobretasunaren historia praktikoa abe-

ratsa da oso. Hasteko, Jerusalemgo lehen kristau elkarteak, Apostoluen inguruan bildutako hark bere bizimodu berriari honela ekin zion: "Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, norik zer behar zuen" (Eg. 2, 44-45). Lehen orduko eredu sozio-ekonomiko hark sekulako oihartzuna izan du geroztik kristau herrian.

Dena den, pobretasun kristauak bere erradikal-tasunak, moduak eta nabardurak izan ditu, biziera pertsonaletan bezala erakunde-moduetan ere. Basamortuan beren esku-lanez bizi ziren eremitak, Erdi Aroko monasterio handi eta txikiak denen arteko ondasunez eta Eskeko Ordenetako fraideak lan eta limosnei esker.

Bien bitartean, eliz erakundeetako ekonomia-ren eta pobretasunaren historiaren ondoan, kristau herritar xumeen norbanakako pobretasunaren gorabeherak daude. Munduan gehienak esklabo eta behartsu izan dira, halabeharrez. Nola bizi izan dute aterpe handirik gabeko herritar horiek beren kristau-pobretasun? Eta horren ondoan, pobre izan behar duen Elizak nola eskuratu eta erabili ditu ondasunak? Noren zerbitzuan?

Kristau herriaren Eliza pobrea?

Judutasunean "laveh-ren pobreak" (*anawim*) ez ziren datu sozio-ekonomikoa bakarrik, batez ere Jainkoari begira bizi ziren behartsu espiritualak ziren, beren itxaropena Harengan zutenak. Balio erlijioso zuzena du halakoak Testamentu Zaharrean, eta Mesias bera haien askatzaile izanen zela aldarrikatu zuen Isaias profetak. Ideia hori bete-betean



jasota dago Ebanjelioetan ere. Testamentu Berrian mundaurekiko askatasuna esan nahi du probreziak, Jainkoaganako ibilia egiteko bide garbi eta askea.

Jerusalemen eta sortuz zihozen bataiatuen elkarteetan Eliza (*ekklesia* = biltzarra) eratu zen, erakunde sozial erlijiosoa, ondoko mendeetan Ebanjelioa oinarri zuela bere antolakuntza, legeak eta ekonomia osatuz joango zena. Ez zuen, hortaz, espiritualtasun biluzia bakarrik, gorputz soziala izatera heldu zen, eta ondasunak eskuetan hartzera. Erlijio handi guztiek dute ideial baten gain eraikita-ko eraikuntza sozial hori.

Azken buruan, aberastuko den Eliza baten ekonomia dago hor, denboraren harian gure egunak arte gorabehara handiak bizi izan dituena. Ez dira garai guztiak berdinak izan. Ondasunak eskuratze hori lanez, legez, borondatez eta bortxaz egin da, denetik egon baita. Kristau herritarren, herri- eta eliz agintarien lan eta nahiak egon dira tartean.

Aberaste horren lehen garai handia IV. mendeko izan zen, Inperio Erromatarra ofizialki kristautzean herri-agintariak berek Eliza eskuzabalki lagundu zutenean, eta jentilen hainbat ondasun Elizaren eskuetara etorri zirenean. Erdi Aro osoan, herriak eta erreinuak kristautu ahala, elkarlanean ahalegindu ziren Elizaren ondarea ere aberasten, hain zuzen eliz erakundeek Erreinuei gorputza ematen ladunduko zutelakoan. Eliza, bere aldetik, saiatu zen herritarren laguntzak bildu eta ziurtatzen, dohaintzak, hamarrenak eta zergak jasota. Erdi Aroak eliz ondare gaitza utzi zuen bilduta.

XVI. mendeak aldakuntza handia ekarri zuen Herrialde protestante erreformatuetan, ondasun haiek eskuz aldatzean. Hurrengo aldakuntza-abagunea batez ere Frantziako Iraultzan eta ondoko hamarkadetan etorri zen Europako mandebaldean: Elizaren ondasunak "ondasun nazional" bihurtu ziren orduan, inoiz lege-kolpe bakar batean (Euskal Iparraldean bezala), eta bestela pausoz pauso, urte ezberdinetan. Eliz *desamortizaioa* deiturikoa izan

zen hori: sal-erosketatik aparte zeuden ondasunak, Estatuak bere egin zituen, eta salmentara atera.

XIX. mendeko gertakari horren atzean edo jatorrian klase-interesak egon ziren, ideologia bat (liberalismoa), ekonomia itxuraldatu nahi zuen eta gora zetorren burgesia, gerra zibilen bat edo beste, talde politikoen eragina eta Elizaren beraren zurruntasuna. Penintsulan ezagutu den iraultza politikoko-ekonomiko handiena izan zen desamortizazio orokorra eta horren barruan Elizarena. Baina herri xumearentzako nekazal erreforma izan zitekeen hura hutsean geratu zen, erosle dirudunen eskuetara joan baitziren ondasunak.

Horren ondoren, 1850etik aurrera, Eliza pobretuak izanberritzeari ekin zion, politikak horretarako tarterik utzi zuenean (Konkordatuak bide emanik). Eta euskal Aro Garaikideko Eliza berritua eraiki zen (1862...): Diozesi-banaketa berriak, Ordena erlijioso zaharren izanberritzea eta, espero zitekeen guztia-
ren gaintik, Kongregazio berrien etorrera.

Berrikuntza hau errealtate sozial zabala izan zen, Eliza barruan ez ezik Elizatik gizarte irekira egin zena, hau da, klausura, dotrina eta sakristietatik eskolagintza arruntera pasatu zen, eta eliz Unibertsitateetara, karitatezko tokiko ekintza apaletatik ekinbide sozial handietara (zahar- eta osasun-etxeak, Caritas). Azkenik, biztanleriak gora egin ahala, komentu, eliza eta eliz egoitzak ugaritu ziren. Guzti horrek ondare berri bat sortu zuen (1876-1965).

Orain, azken mende-erdian, Eliza eta gizartearen arteko harremanak oso aldatu dira, sinismen-munduan eta gizarteko lehentasun sozio-ekonomikoetan. Dagoeneko, eztabaida bizia dago (daki-danez, batez ere Nafarroan) Elizaren ondarearen etorkizunaz. Azken hamarkadako Elizaren krisia eta finantzena parean direla, ez legoke gaizki iraganari begiratu kritiko bat botatzea, Aita Santu berriarekin batera Ebajeliotik hurbilago izateko.

Joseba Intxausti